

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

“Amurrioko Hiribilduko” 2019ko argazki lehiaketaren sariak arautzen dituzten oinarriak onestea

2019ko martxoaren 28ko udalbatzaren erabaki bidez, “Amurrioko Hiribilduko” 2019ko argazki lehiaketaren sariak arautzen dituzten oinarriak onetsi ziren, jarraian zehazten diren ezaugarriekin.

Partaidetza: Oinarri hauekin bat datorren edonork parte hartu ahal izango du, edozein dela ere bere nazionalitatea edo bizilekua.

Gaia. Bi aukera dago:

Gai libreko hiru argazkiren bilduma.

Amurriori eta giza paisaiari buruzko hiru argazkiren bilduma.

Amurrioko udalerriari buruzko argazki bildumaren xedea: Lehiaketaren helburua da, argazkien bidez, Amurrioko gizarte errealitate anitza erakustea, Amurrioko biztanleena eta gizarte jarduerarena.

Lanak: Gehienez ere, parte hartzaile bakoitzak argitaratu gabeko bi bilduma aurkeztu ahal izango ditu modalitate bakoitzeko. Dena den, modalitate bakoitzean bilduma batek bakarrik jaso ahal izango du saria. Epaimahaiak bildumaren koherentzia baloratuko du. Edozein teknika edo prozedura onartuko da, digitala edo laborategikoa, kolorean edo zuri-beltzean.

Argazki bakoitza jpg. formatuan aurkeztu beharko da, eta 72 ppi-ko bereizmena izan beharko du. Obra hautatu daitekeela aurreikusita, parte hartzailearen ardura izango da argazkiaren kopia bat edukitzea, bereizmen egokikoa, oinarri hauetan zehazten den neurrietan inprimatzeko.

Lanak entregatzea: Lehiaketan izena emateko eskabidea helbide honetan dago: www.amurrio.org/es/concursofotografico.

Aurkezteko epea: 2019ko maiatzaren 31tik ekainaren 14ra.

Lehen hautaketa: Jasotako lan guztien artean, epaimahaiak lehen hautaketa egingo du. Antolatzaileek egileei eskatuko diete hautatuko lanak paper euskarrian aurkezteko, “La Casona” udal erakustea aretoan erakusketa egiteko eta saria lortu ahal izateko.

Hautatutako obrak: Hautatutako lanen egileek lanak paperean bidali beharko dituzte, 2 milimetroko lodiera duen “passepartout” gainean, 40x50 neurrian, eta markoan bertikalean jarrita. Argazkia ezin izango da “passpartout”a baino handiagoa izan, baina formatu eta neurri libreak izango ditu.

Hautatutako obrak gasturik gabe eta behar bezala bilduta bidaliko dira. Paketearen kanpoko aldean lanaren leloa bakarrik agertuko da, erreferentzia pertsonalik gabe. Lelo hori bera agertuko da gutun-azal baten kanpoko aldean. Gutun-azal horren barruan honako hauek jasoko dira: parte hartzailearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, lanen zerrenda eta bildumaren leloa. Bai paketea bai gutun-azalean xedea eta gaia agertu beharko dira: “Amurrioko Hiribilduko argazki lehiaketa”; “Gai librea” edo “Amurrio”. Eta, helbide honetara bidaliko dira: Kultur Etxea, Landako kalea 8, 01470 Amurrio, Araba.

Parte-hartzaileek bere gain hartuko dute argazkiek bidalketan galtzeko edo narriatzeko duten arriskua.

Epaimahaia: Argazkilaritzan adituak diren hiru pertsonen osatuko dute epaimahaia. Horien lana izango da ikusgai dauden lanak hautatzea eta sariak banatzea. Haren erabakia apelaezina da.

Sariak:

- 1. saria gai libreko 3 argazki bildumari: 400 euro eta garaikurra.
- 2. saria gai libreko 3 argazki bildumari: 200 euro eta garaikurra.
- 1. saria Amurrio gai duen 3 argazki bildumari: 800 euro eta garaikurra.
- 2. saria Amurrio gai duen 3 argazki bildumari: 200 euro eta garaikurra.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua onesten duen Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, pertsona fisikoak jaso eta 300 euro baino gehiagoko sarien atxikipen oinarria pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ehuneko 19 izango da.

Saritutako lanak bereizmen handiko euskarri informatikoan eta paperean eman beharko zaizkie antolatzaileei.

Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, udal web orrian aurkeztuko da sarituen zerrenda.

Sari banaketa eta erakusketa: Sariak 2019ko ekainaren 28an banatuko dira “La Casona” erakusketa aretoan, arratsaldeko 20:00etan. Egun horretan bertan inauguratuko da hautatutako lanen erakusketa. Lan horiek uztailaren 19ra arte egongo dira ikusgai.

Lanak zaintzea eta itzultzea: Saririk jaso ez duten lanak Amurrioko Kultura Etxean jaso ahal izango dira 2019ko irailaren 27ra arte. Egun horretatik aurrera, jaso ez diren lanak Amurrioko Udalaren esku geratuko dira. Bere lana postaz itzultzea nahi duenak, berariaz adierazi beharko du, eta itzulketa gastuak bere gain hartu beharko ditu (jasotzean ordaintzeko bidalketa).

Lanak behar bezala zainduko dira, baina antolatzaileek uko egingo diote erantzukizun orori haiekin zerikusirik ez duen arrazoiengatik kalteren bat gertatuko balitz.

Eskubideak: Parte hartzaileak egile eskubideen titular bakarrak izango dira, eta bermatu beharko dute beste inork ezingo duela erreklamatu lehiaketara aurkeztutako argazkien gaineko inolako eskubiderik.

Hirugarren pertsonen gainean irudi eskubideengatik edo irudia txarto erabiltzeagatik sor litekeen erantzukizuna egilearena izango da bakar-bakarrak, eta Udalak ez du hori konpontzeko beharrik izango.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar Amurrioko Udalari lagatzea saritutako lanak ustiatzeko eskubidea. Dena den, eskubide hori bateragarria da egileek aurkeztutako obrak ustiatzeko duten eskubidearekin.

Azken arauak: Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek osotaro onartzea. Oinarrietan jasota ez dauden beste egoera guztiak antolatzaileek interpretatu eta ebatziko dituzte. Saria eman gabe gelditu daiteke.

Amurrio, 2019ko apirilaren 1a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA